



Itziar Alkorta Idiakez

Bioetikan aditua

ARG.: Eusko Ikaskuntza/CC-BY-SA

“Iraultzailea izango litzateke kontserbadorea izatea”

Ana Galarraaga Aiestaran · Elhuyar Zientzia

Labur gelditu da orri betea Itziar Alkorta Idiakezen erantzunak jasotzeko, gogoeta mamitsua plazaratu baitu. Izan ere, hamarkadak daramatza giza ugalkortasun artifizialarekin lotutako auzi etiko eta legalak ikertzen, eta kezkaz ikusten du geroa. Donostian jaio zen, 1967an, Zuzenbide Zibileko Irakasle Titularra da EHU_n, EHUko Udako Ikastaroen zuzendaria, Jakiundeko kidea, eta bioetikaren erronken gaineko gizarte-eztabaidaren eragile aktiboa, Euskal Herrian zein nazioartean. Hemen ere eman ditu eztabaidarako gako batzuk, zintzo eta sakon.

Zerk harritu, asaldatu edo txunditu zaitu gehien, lanean hasi zinenetik?

Ikertzen hasi nintzenetik, beti izan dut gaitzat giza ugalkortasun artifiziala. Eta txundigarria iruditzen zait 1980eko hamarkadatik hona izan den iraultza. Ez dut uste aldaketa teknologiko eta soziologiko bat gehiago denik, baizik eta zibilizazioa aldatu duen fenomeno teknozientifiko bat.

1990eko hamarkadan, tesia irakurri nuen garai hartan, gogoan dut zer irudikapen genituen obuluen dohaintzari edo amastasan subrogatuari buruz, etorkizunera begira. Eta teknologiaren iraultza horrek, biomedikuntzarekin batera, gaur egun eman duen emaitza ez da inondik inora orduan irudikatzen genuena. Gainditu ditu, erruz, gure aurreikuspenak, eta sortu ditu aukera, galdera eta kezka handiak. Batez ere, kezka eragin dit aplikazioak, mozkin ekonomikoa lortzera bideratu baita.

Lehen baikorra nintzen teknologia hauekiko; gaur egun, aitortzen dut kritikoa naizela. Lagundutako ugalketa industria pribatu bat bihurtu da: dirua duenak du ugaltzeko modu batzuetarako sarrera, eta jende gehienak ez dauka. Diskriminazioa eragin du, eta giza gorputzaren merkantilizazioa. Niretzat hori kezkarria da. Bere garaian oinarri batzuk jarri ziren, giza ugalketarako ez ezik, baita organoen dohaintzarako ere, adibidez; eta horiek denak gainditu egin ditugu, eta orain bada industria bat giza gorputzaren esplotazio-modu berriez bizi dena. Gainera, indartu egin ditu lehen zaugarriak ziren pertsonen arriskuak: emakume gazteak, txiroak... Haien gorputzak lehengai bihurtu ditugu European eta Europatik kanpoko herri pobretuetan.

Zer iraultzaren edo aurkikuntzaren lekuko izan nahiko zenuke?

Giza gorputzaren gaineko desregulazioarekin kapitala egiten ari dena ez da mugatzen ugalketara. Hor dago saio klinikoekin gertatzen ari dena, zaintzaren arloan... Horren aurrean, planteamendu berri bat egin beharko genukeela iruditzen zait.

Orain dela 75 urte giza eskubideak aldarrikatu zirenean, giza gorputzaz zegoen ideiak eta gaur egun dagoenak ez dute zerikusirik. Gauden unean, giza gorputzaren, eta hor adimena ere sartzen dut, estatus berri bat behar dugu. Gogoeta egin behar dugu une hauetan, non teknologiaren aplikazioan urrats bat gehiago emanez gero, gizakiaren izaera beraren aldaketa funtsezko bat emango genukeen.

Bestela, gogoeta honi ez badiogu serio ekiten, arriskua dago atzera itzultzeko aukerarik gabeko aro batera igarotzeko. Aukera batzuei uko egitea planteatu behar dugu. Hau ez da inoiz horrela izan historian: egin genezakeen guztia egin dugu. Nire esperientziatik ere horrela izan da: giza ugalketan egin zitekeen guztia errealitate bihurtu dugu. Hor-taz, iraultzailea izango litzateke kontserbadorea izatea. ●